

Groibek Kale

Elgetako aldizkaria apirila 67zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Zure odola =
askoren bizitza**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Eta Elgetan Zergaitik ez?

Bada denbora dexente Goiena Komunikazio proiektua martxan jarri zela, horrela astero Goienkaria etxeetan jasotzen dugu.

Beste herri batzuetan aspalditik Goiena telebista ere ikusten dute, Elgetan, berriz, ez. Zergaitik ote galdetuko du jendeak. Oso goian dagoelako? Udalaitz tartean dagoelako, igual? Ba ez, hori baino harri gogorragoa dago tartean: PNV. Bere alkatetza duten hiru herrietan ez da ikusten Goiena telebista: Bergara, Oñati eta Elgetan. Eskualdeko beste herri denek (Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Antuzola, Gatzaga eta Aramaixo) sinatu dute Goienarekin hitzarmena, diru laguntzak eman eta aspalditik telebista ikusten dute.

Mundu globalizatu honetan, herri komunikabideek kriston garrantzia dute, herrien arteko harreman horren alde dauden Elgetarrek Udaletxea presionatu beharko lukete, behin goz, Elgetan ere GOITB ikusteko. Lan honetan Goibeko kultura taldea motorra izan beharko litzateke, Kultura eta herri komunikabideen alde badago behintzat.

S. Arantzabal


ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu-emon, posta elektronikoa: goibeko@topagunea.com

Jarri zure iragarkia

Tel.:
943.78.90.85



ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR

ER

Empresa Registrada

BR-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Elgeta, 1937ko apirilaren 24a

E amar-hamabi urteko neskabila naiz. Ni neu kale-baserrian jaio nintzen, baina berdintsu bizi izan gara denok Elgetan, kaletar eta baserritar. Gerrak joan zen uztailean urten zuen, eta urria ezkerro frontea Elgetan bertan izan dugu.

Etxean, aita eta biok geratu gara. Denbora da eskolara ere joaten ez naizela. Soroan, kortan edo esne partitzen ibiltzen naiz. Noiz edo noiz, aitak, batzokira eroaten nau, eta han, ume batzuek euskal kantauk ikasten ditugu.

Etxean, aita eta biok geratu gara. Denbora da eskolara ere joaten ez naizela. Soroan, kortan edo esne partitzen ibiltzen naiz. Noiz edo noiz, aitak, batzokira eroaten nau, eta han, ume batzuek euskal kantauk ikasten ditugu.

Azken lau egunotan, hilaren 20a inguruan hasita, borroka hotsak gertuago aditzen ditugu. Frankistak gero eta lotsagabeago hasi dira borrokan. Elgeta leku estrategikoa da eta borroka lerroa apurtu beharra dago. Falangistak eta mairuak agindu gogorak hartuta datoz!

Atzo, hilaren 23an, han hasten da abiazioa Bizkaitik bonbak jaurtitzeko! Jaurti eta jaurti, etenik barik. Halako batean, bonba batek Bentafrako lubakiaren aho-ahoa jo eta Kanuto Panaderokua, (Julio zenaren aita) hil zen bertan. Beste bonba batek "Kantoikoa" txikituta utzi du, beste batek Udaletxea —orduan, gaurko Leoneneko etxe aurrean zegoen—, soroetan-eta auskalo zenbat jausi diren! Hala, herria txikituta geratu arte!

Ez da giro! Azkenean, Bizkai aldetik ezin eta Kanpazartik apurtu dabe frontea faxistek. Aurre-aurrean mairuak direla sartu dira herrian, eta zenbat txikizio eta lapurreta egin etxeetan! Grabeena, dudarik barik, Seston gertatutakoa izan da: Antoniren aita, Pedro Telleria hil, eta ama, Frantziska Lamarain, hiltzorian zaurituta laga dute. Alabatxoak, ama defendatzeko ahalegina egin eta balak harrapatuta, bizpahiru atzamar galdu ditu. Hau izua zabaldu dutena mairuok! Emakume eta neskabila guztiok gordeko gaituen zulorik ez dago. Neuk ere, bazkal ostean, etxeko sukaldean aurkitu ditut, eta ihes egin dut Aixola erreka aldera. Hauek zer egin zuten pasatakoak bakarrik dakizki!

Beatriz Zabalondo



Hizkuntza gordeleku

Euskaldunok askatasun osuarekin bizi ei gazenian, Erdaldunek ez ei dakenian askatasunik, euskaria gordeleku

bihurtzen jaku batzuetan: ikusi bestela aurreko baten Bitorixan zer pasau jakun.

Sartu gara "El corte Inglesera" negu giro hotzetik babestera eta etorri jaku txixa larrixa, neska lagunari eta bixoi. Pregunta dogu komunak nun diran; izan be holako lekutan gauza danak nun diran jartzen dabe, baina komunera fatia ez da bape erreza izaten, bueno, bilau doguz komunok eta fan gara.

Gizonen komunian inolako problemarik ez, baina neskenian, beste askotan moduan, karabanian. Holakuetan lotsa larregirik be ez dogu eukitzen eta esan dotsat neskiari mutilen komunera sartzeko ilandan ez egoteko. Neu be han inguruan ibiliko naizela eta.

Bera barruan dagola sartu da beste gizonezko bat komunera eta orduantxe euskeriaren erabilgarritasuna:

-Beste bat sartu da hona eta ez urten neska. Bitorixarra ez entenditzeko moduan, nik.

-Neregaittik trankil urten leikek. Ez nok ni horregaittik bilddurtuko. Inguru honetako sartu barrixak euskara naturalian.

Elkarri konfiantzazko begirakunia bota, barre txiki bat egin eta "El Corte Ingles"-eko komunetan be etxian moduan.

Hau izan leike euskaria gordeleku izatiaren adibide on bat, baina txarra be bada. Edozein lekutan, edozeinekin euskeraz berba egitteko eskubidia benetan eukiko bagiñu ez litzake holakorik pasauko. Hemen jarzen dabena entenditzeko kapaz ez diranak hau entendiduko balebe konturatuko lirake euren ezjakinttasunak geure hizkuntzia erabiltzeko eskubidia murrizten dabela.

Baiña ez ei da hola. Geu ei gara, euskeraz, berba egitten dogulako euren askatasuna murrizten dogunak. Behartu egitten ei dittugu eta euren askatasuna zapaltzen ei dogu. Eta antzerako beste astokerixa asko be entzun egin bihar izaten dittugu askotan.

Jabier Arantzeta

kutxa

**gizarte-ekintza
obra social**



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Oihana Saratsua Esti Askasibat eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. ISSN: 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Santiago Gonzalez: "Hondarribitik 100 dolarrekin irten ginen eta munduari buelta eman"

Santiago Gonzalez eta bere familia duela 17 urte irten ziren Hondarribiako portutik. Munduari bira eman diote, arraza, kultura eta hizkuntza desberdinetako lagunak eginez. "Leku berri batera gindozazenean beti internet edo hiztegien bidez ikasten genituen, bertakoekin komunikatzeko hitzak, honela ez genuen arazo handirik izan". Munduari bira, belaun-tzian eman diote "semeak umeak zirenean, belauntzira lotzen genituen olatuek eraman ez zitzañen". Bidaiari ekin ziotenean Kanariar Irletara jo zuten "Kanarietara artekoa fro-

ga bat izan zen bidaira nola moldatzen ginen jakiteko". Lan desberdina egin dituzte "100 dolarreki irten ginen etxetik eta hainbat lan egin dugu: leku batean oroigarriak erosi beste batean turistei saltzeko, arrantza, itsasuntzi konponketak... semeek dentista lanak ere ikasi zituzten". Arrisku franko ere pasatakoak dira, "itsas handiak, tiburroi eta kokodriloak, erleak, piratak... arrisku gehien ordea nahi gabe labainarekin eskuturra moztu nuenean izan zen: "Horrelakoetan gauza asko bururatzen zaizkizu, etxean lasai lasai egon



40 lagun inguru batu ginen Gaztetxean Santiago eta bere familiak egindako bidaia ezagutzera

beharrean horrelako bidai batean zer egiten duzun, eta horrelakoak". Semeak nagusi egiten ari ziren, dagoeneko urte dexente ziren horrela bizitzen eta bidaiarekin zer egin pen-

tsatzeko unea iritsi zen. "Familia guztiak hitz egin eta bidaiari jarraitu genion, munduari bira osoa ematea izan zen erabakia eta bukaera arte jarraitu genion".

Jaiak aurkezteko emanaldi berezia Espaloian

Ekainaren 15ean, aurtengo jaietako egitarauaren auzuekpena izango da gaueko 22:00etan. Ondoren "Aukeran" taldearen ikuskizuna izango da. Bergarako taldean, Muruamendiaraz dantzari eza-gunak hartzen du parte eta musika Kepa junkerak

konposatutakoa da.

Jaietako egitaraua ia eginda dago, lotzekoak badauden arren. Ekintza aipagarrienen artean, osteguneko pregoia, Mexikotik etorritako taldea eta zapatuko danborrada daude. Aurten ere, aurreko urtean bezala, jende uga-

rik eman du izena danborradan parte hartzeko eta maiatzaren 5ean hasiko dira entseguak. Danborradan parte hartzen dutenek afaria izango dute Espaloia aretoan.

Oraindik ez dakite jai batzordean, igandean egiten den azokan, gana-

dua egongo den ala ez, eta ezta ere zezenak ekartzetik izango den, horrenbeste entzuten den sukar aftosoa dela eta.

Bestalde, plazan izango diren taldeak, Drindots, Egan, Mexikarrak eta Imuntzo eta Beloki dira.



Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

Maiatzak 26an Mendi Federazioaren Batzarra

Euskal Herriko Mendi Federazioak batzarra izango du Elgetan maiatzak 26an.

Espaloia aretoan izango da batzarra. Bertan Euskal Herriko Mendi federazioa osatzen duten elkarte desberdinetako 200 ordezkari inguru batuko dira. Batzarra bukatu eta gero, gau alde-
ra, afaria izango dute aretoan bertan.

Batzar Orokorreko antolaketarekin gustora geratu zirenez berriro

bueltatzea erabaki dute. Lehendakari berriak Batzar Orokorra eta gero,

Elgeta batzarrak egiteko leku aproposena zela esan zuten.

Mendi museoaren proiektua aurrera

Aipatzekoa da Udaletxeak eta Mendi Federazioak Elgetan mendi museo jartzeko asmoa aurrera doala. Momentu honetan Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzekin Udaltexea eta Mendi Federazioa, museo honen aurreproiektua egiten ari dira. Mendi museo kokatuko den ingurunea zehaztuta dago eta seguruenik erai-
kin berri bat egingo da.



200 ordezkari inguru elkartuko dira Federazioaren batzarrean

Asentzio Egunerako dena prest

Aurten maiatzak 27an izango da Asentzio Eguna. Herriko gazteek duela sei urte berreskuratu zuten erromeria. Aurten ere herritar guztiak potzuaren bueltan batzeko moduko programa egiten dihardute.

Goizeko 10:00etan etxaleroen abisuarekin hasiko da Asentzio Eguna. 10:30etan arrantza txapelketa izango da. Gure Bordakok salda eta txorixoa gertatuko dute. Eguerdian meza izango da ermitan. Meza ondoren dantzak izango dira. 14:30etan bazkaria izango da. Arratsaldean erromeria izango da, errifaren zozketa bertan egingo delarik.

Bazkarirako txartelak eta jaia aurrera ateratzeko errifak saltzen daude dagoeneko.



Aurten ere jende ugari batuko da Asentzio Eguneko erromerian



55 litro olio batu ziren

Hilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Maya ingurumen taldeak plazan egindako olio bilketan, 55 litro inguru olio batu zituen. Gehiengo tabernariak batutako olioak izan zen baina lehenengo aldia izateko jendearen erantzuna nahiko ona izan da. Aurrerantzean ere bilketak egiten jarraitzeko asmoa dago hilero, azkenengo ostiralean 18:00etatik 19:00 tara. Bestalde, hilaren 26an, Patxi Montero, Biolurreko kidearen hitzaldia izan zen liburutegian. Aurreko urteko azaroan emandako "Zer jaten dugu?", produktu ekogikoei buruzko hitzaldiaren jarraipena izan zen.

Maiatzaren 13an, haurrekin mendi irteera antolatu dute, inguruko zuhaitzak ezagutzeko. Bide batez, zuhaitz desberdinen orriak batuko dira, gero sikatutakoan orrien bilduma egiteko.



Olio ugari batu zen eta aurrerantzean ere erabilitako olioak batzen jarraituko dute Maya taldekoek.

Angiozar AHTren aurka Egingo diren txikizioak ezagutzeko martxan jende ugari batu zen

Abiadura Haundiko Trenare aurkakoek deituta jende ugari batu zen Angiozarren apirilak 29an. Goizeko 11:00etan Bergarako plazatik atera eta 13:15etarako Angiozarrera iritsi zen trenaren kontrako marxa.

Bidean geldialdi ugari egin zituzten, proiektuaren nondik norakoak ezagutu eta aurrera eramateak ekarriko duena azaltzeko.



Angiozarrera jende ugari hurbildu zen AHTren aurka daudela adierazteko.

Kontribuzioa ordaintzeko epe berria

Baserri eta Hiritar kontribuzioa ordaintzeko epea aldatu da. Foru Aldundiak atera duen Dekretuak epe berriak finkatzen ditu. Gai-nordainketarik ez egiteko, zergadunek maiatzaren 15etik ekainaren 30era ordaindu beharko dute kontribuzioa.


Islandia eta Zeelanda Berria Udaberri Ibiltariaren barruan

Maiatzaren 18an, gaueko 21:30etan, "Izotza eta sua: bi bidaiak antipodetara, Islandia eta Zeelanda Berria" diapositiba emanaldia izango da Gaztetxean. Gaztetxeak eta Kultura Batzordeak antolatutako Udaberri ibiltari-ko ikusentzunezko ekitaldien barruan.

Bertan Iñigo Krugak, bidaiak desberdin biren arteko konparaketak egingo ditu. Islandia eta Zeelanda Berrian izandako bizipenak kontatuko ditu.

XV.mendeko irudiak daude erretaularen atzean

Abendutik daude geratuta parrokiaren dagoen XVIII. mendeko erretaula berreskuratzeko lanak. Erretaula berreskuratzeko lanetan ari zirela, goiko medaloiko egurrak askatzean XV. mendeko bi irudi zeudela konturatu ziren. Irudi hauek Ama Birginaren bizi-zako pasadizoak eta Enuntziatioak dira. Metro t'erdia inguruko zabalera eta altuera dute. Hauen azpian ere beste bi irudi ei daude. Dirudien irudi hauek, Gipuzkoan kolorezko margoekin eginda daudenetik geratzen diren bakarrenetakoak dira. Margo hauekin zer egin erabaki arte, erretaulako lanak geratuta daude.



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Xabier Ezpeleta

(42 urte) Tabernarixa

Zenbat urte tabernari lanetan?

Oiñ Haizeakin 3 urte, baiña lehenau beste 4 urte ibili nintzan Durangon.

Zeintzuk dia tabernarixa izatiak dakazen alde onak eta txarrak?

Ona jente asko ezagutzen dozula eta alde txarra ordutegi nahiko eskasa dakala.

Tragoik karuena noiz kobrau dozu? Behin batzuk erdi katxondeuan zebizenian 1000 pezetatako kopa bat eskatu zebeu.

Zenbategi egitten dozue tabernan lan? 3 gare, baiña domeketan 2 lagun etortzen dira laguntzera.

Gogoratzen dozu Haizeara lanera etorri ziñan lehenengo eguna? Bai, nahiko normala izan zan.

Zeintzuk dira zure bezeroik berezixenak? Hemen danak dira ongi etorrixak ez dago berezirik.

Txutxumutxu askona egitten da berba barran? Bai beste lekutan moduan hemen be egoten dira, baiña ezin leike kontau.

Tabernia aurrera ondo eruateko modu bat? Jentia eta bezeruekin ondo eruatia.

Gorputzeko atalik politxena, zein daukazu? Sudur puntia.

Urtian zenbat egun hartzen dozue jai? Haizea sekula ez da itxi, urte guztiko egun guztixetan zabaltzen da. Bakarrik greban bat egon danian itxi da.

Bitxikeririk? Beti piskat eraten

danian gauza asko kontatzen dira bestela ez diranak kontatzen. Baina gauza horrek ezin dira kontau.

Kamarero gehixau ligatzen da?

Ni monogamo bat naiz. Andria dakat eta ez dakat ligatzeko premiñarik.

"Gran Hermano" jarraitzen dozu? Juango zinake?

Inoiz zapiña egitten ikusi dot, baina ez dot jarraitzen. Ezta pentsatu ere ez, ez nitzake fango.

Tripakixak edo txanpikak nahixau?

Tripakixak nahixau dittut.

Bizio bat?

Bizio txikirik ez dakat eta handixetarako ez jata hel-tzen

Egun bateko bizitza emon ezkeru zer egingo ziñuke?

Familixiakin egon.

Zeure burua definidu bi berbatan?

Nahixau dot beste batek definitzia ni. Bestela ba, pertsona normal bat naizela esango neuke.

Zerk amorratzen zaittu gehixen?

Enbidixa eta faltsukerixiak.

Bezeruak asko eskatzen dabe?


Ez, jentia oso ondo portatzen da normalian. Beti dago eszepziño bat, baina...

Eguneko momenturik goxuen tabernan?

Tabernia beteta dagonian, horrek dirua esan nahi dau eta.



Odola emoten dozu? Emoten danakin nahikua dala uste dozu?



Igor Henze
(28 urte) Bihargiña

Ez, ez dot odolik emoten, gaiñera ez dot sekula planteau be egiñ. Uste dot ona izango zala danok piskatxo bat emotia, baiña gauzak hola dare...

Bai, odol emoillia naiz. Zenbat eta gehixau emon hobeto da ze bihar haundixa dago, baiña uste dot Elgetan behintzat jende askok emoten dabela. Danok pixkatxo bat gehixau emon ezkeru hobeto izango litzake, baiña hori bakoitzak ikusi biharra daka.

Aintzane Zabala
(41 urte) Etxekoandria



Arantxa Arrieta
(56 urte) Etxekoandria

Bai, odol emoillia naiz urte askuan. Uste dot Elgetan jente gehixau juan biharko zala, ze emoten da, gaztiak be billurrez darella odola emotera jua-teko.




Jkeir Zabaleta
(13 urte) Uklasla

Ez, ez naiz odol emailia eta gaiñera ezin naiz izan. Uste dot odola emon biharra dagola ze biharrezko gauza bat da eta espe-ro dot hemendik urte batzutara nik be emotia.

Ez, ez naiz odol emoillia. Uste dot bakoitzan aukera bat dala emon ala ez emotia, baiña sobraa sekula ez dago, beti etortzen da ondo odola emotia.

Jñaki Ungoitia
(49 urte) Bihargiña



Nik dakaten edadiakin ezin dot emon. Baina nik uste dot odol asko bihar dala. Neri be odol asko sartu doste eta badakitt odol asko bihar dala.

Maritxu Aranzabal
(69 urte) Etxekoandria



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

**...eta kitto!, Drogeteniturri eta
Goibekokale aldizkarien
AUTOEN GEHIGARRIA**


Honakoa da Eibar, Elgeta eta Ermua aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun bigarren eskuko AUTOEN GEHIGARRIA.

10.000 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

4. zenbakia. 2001eko apirila

Publizista: *Belen Ulazia*. Diseinua eta maketazioa: *Koldo Mitxelena Zumaran*.

Tirada: 10.000 ale. Tel. 943 20 67 76 / Faxa. 943 20 67 76



Autoak aukeran




MENDARO AUTOAK.

Plaza auzoa z/g

MENDARO**Tel. 943 75 50 72 / 608 77 33 98**

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
OPEL AGILA 1.2	SS-BJ	2000	I/Z, J/E, L/D, A/E, 2 airbag	1.450.000 pta.
OPEL CORSA 1.4 5p	SS-AS	1994	Irratia	650.000 pta.
SEAT IBIZA 1.9D 5p	SS-AZ	1997	I/Z, J/E, L/D	1.350.000 pta.
SEAT CORDOBA 1.9 TD	SS-AT	1994	I/Z, J/E, L/D, A/E, Llantak	1.100.000 pta.
PEUGEOT 306 SEDAN 1.9 TD	SS-AW	1996	I/Z, J/E, L/D, A/E	1.600.000 pta.
RENAULT EXPRESS 1.9D	SS-AL	1991	Irratia	450.000 pta.
GOLF 1.8i 3p	NA-AJ	1993	I/Z, J/E, L/D, A/E, Llantak	1.100.000 pta.
FORD ESCORT NOMADE 1.6	SS-AL	1991	I/Z, J/E, L/D	650.000 pta.
NISSAN PRIMERA 1.6 16v	SS-BF	1999	I/Z, J/E, L/D, A/E, 2 airbag, Llantak	1.700.000 pta.
MAZDA 323F 2.0 V6	BI-CB	1996	Ekipamendu osoa	1.800.000 pta.
HYUNDAI COUPE 1.6 16V	BI-CN	1999	I/Z, J/E, L/D, A/E, Llantak	1.650.000 pta.
HYUNDAI ACCENT 1.5 GS 3p	SS-AZ	1997	J/E, L/D	1.000.000 pta.
HYUNDAI LANTRA SW 2.0	SS-AZ	1997	I/Z, J/E, L/D, A/E, Llantak	1.600.000 pta.

A/E: Aire Egokitua J/E: Jasogailu elektrikoak L/D: Lagundutako direkzioa AB: Airbag I/Z: Itxidura zentralizatu



Garabi zerbitzu
iraunkorra
Tfnoa. 608-17 78 89

ERMUA KARROZERIAK, S.L.

Zeharkale, 26 300 Postakutxatila
Tfnoa. 943 17 62 66 ERMUA

RALLYE SPORT

AUTOMOBILAK

Aukeratutako
bigarren eskuko kotxeak

Barrena 32 - 20600 EIBAR - Telefono eta faxa: 943 12 03 09



**AUTOENDAKO ERREMINTAK, ALDAGAIK
ETA OSAGAIK**

Otaola 7 EIBAR Tel. 943 70 21 31



GARAJEA

Legarre

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Legarre, 2
Telefono eta Faxa: 943 20 63 71

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

Gidatzeko Karnet Guztiak

SOLOZABAL

autoeskola

TORIBIO ETXEBARRIA 5 - 1. Tel. 943 70 23 84

- Klase teoriko eta praktikoak norberak nahi dituzten.
- Klase teorikoak ikusentzunezkoen abantailak erabilita.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazioarteko agentzia ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

**HOGEL, S.A. (Fiat/Alfa Romeo banatzailea) B. Sarasketa 7
EIBAR**

Tel. 943 12 10 19 / 943 12 10 00

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
GOLF 1600				300.000 pta.
FIAT BRAVO 80 CV			73.000 km.	750.000 pta.
FIAT PUNTO TD 70 CV			69.000 km.	910.000 pta.
VW PASSAT				690.000 pta.
VOLVO 480 TURBO				950.000 pta.
KIA SHUMA		1999	40.000 km. Oso ekipatua	1.200.000 pta.
PUNTO HGT			0 Kilometroa	1.975.000 pta.
PUNTO 1200			0 Kilometroa	1.325.000 pta.
PUNTO 1200 3p		2000	Kilometro gutxi	1.125.000 pta.
LANCIA EPSILON		2000	Kilometro gutxi, A/E	1.160.000 pta.
Kilometro 0. Hainbat FIAT Punto				
Kilometro 0. Hainbat FIAT Bravo				
Kilometro 0. Hainbat FIAT Marea				

AUTOMOBILAK




I. Ojanguren 2. Tel: 943 20 64 74
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

T. Anitua 3. Tel: 943 20 18 99
20600 EIBAR (Gipuzkoa)




Tailer profesionalak



Ricardo García
Bidebarrieta, 39
Tel. 943 20 22 14
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Fernando García
Barrena, 11, Ayra Durex erai.
Tel. 943 12 72 71
Faxa. 943 20 43 04
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



**AUTOEN
MEKANIKA**

Arragueta zeharbidea 1

OPEL Analsa

ELGOIBAR	Olaso, 25	943 74 40 12
EIBAR	Otaola Etorb., 27	943 70 08 41
MENDARO	Plaza Auzoa, z/g	943 75 50 72

HYUNDAI

Mendaro Autoak

DONOSTIA	Zumalakarregi Etorb., 1	943 31 22 00
ELGOIBAR	Olaso kalea, 27	943 74 32 00
EIBAR	Otaola Etorb., 27	943 20 25 00
IRUN	Pinar, 21	943 61 02 00
MENDARO	Plaza Auzoa, z/g	943 75 50 72



Autoak aukeran

**...eta kitto!, Drogeteniturri eta
Goibekokale aldizkarien
AUTOEN GEHIGARRIA**

SEAT EIBAR MOTOR.

Otaola 17

EIBAR

Tel. 943 20 30 93 / 943 12 18 00

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
PEUGEOT 405 1.9 SRI 120 CV	M-MG	1990	A/E, J/E, L/D, I/Z, Irratia	400.000 pta.
CITROEN ZX 1.9 TD 92 CV	BI-BS	1992	L/D, Irratia	650.000 pta.
FIAT BRAVO 1.6 16V 105CV	SS-AZ	1997	J/E, L/D, I/Z, Irratia	975.000 pta.
GOLF 1.9 TD 75 CV	SS-AU	1995	I/Z, J/E, L/D, Irratia	1.150.000 pta.
OPEL KADETT GSI 130 CV	NA-AC	1990	I/Z, J/E, L/D, Irratia	450.000 pta.
OPEL VECTRA 2.0 CD	BI-BC	1991	J/E, I/Z, L/D, Irratia	490.000 pta.
IBIZA 1.9 D 64CV 5P HIT	M-XU	1999	J/E, I/Z, L/D, A/E, Irratia	1.400.000 pta.
NISSAN PRIMERA 1.6 16V	SS-AW	1996	J/E, I/Z, L/D, Irratia	1.000.000 pta.
OPEL KADETT 1.8 115 CV GT	SS-AL	1991		500.000 pta.
GOLF 2.3 V5 150 CV VARIANT	SS-BG	2000	I/Z, L/D, J/E, Irratia, Klimatizadorea	3.000.000 pta.
VW NEW BEETLE 2.0 115 CV	SS-BG	2000	I/Z, L/D, J/E, A/E, Irratia	2.975.000 pta.
VW BORA 1.9 TDI 90 CV	SS-BG	2000	I/Z, L/D, J/E, A/E, Irratia	2.900.000 pta.
AUDI 1.8 TURBO 150 CV	M-ZM	2000	I/Z, L/D, J/E, Irratia, Klimatizadorea	3.550.000 pta.

A/E: Aire Egokitua **J/E:** Jasogailu elektrikoak **L/D:** Lagundutako direkzioa **AB:** Airbag **I/Z:** Itxidura zentralizatua



Ego Gain, 4 - behea

(San Andres pasealekutik)

EIBAR

Tel. 943 20 34 45

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**



Elgetako Udala

Abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretuak, epe berriak finkatzen ditu Zerga ordaintzeko.

Por Decreto Foral 98/2000 de 27 de Diciembre, se fijan nuevos plazos de ingreso del Impuesto de Bienes inmuebles.

RUSTIKOA ETA URBANOA

**Kontribuzioa ordaintzeko epe berria honako hau da:
La nueva fecha de pago de contribución es la siguiente:**

**Maiatzaren 15etik ekainaren 30era
15 de MAYO al 30 de JUNIO**

Elgetako Udalak eskatzen die zergadun guztiei, kontuan izateko aurrean adierazitako epe-mugak gainordainik ez izateko.

El Ayuntamiento de Elgeta, solicita a los contribuyentes, tengan en cuenta la fecha acordada, para evitar recargos.

Elgetako Udala

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta
mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste
dimensio batetara!

Tel: 768078

Bizitzaren edaria

Gero eta odol emaile gehiago dira EAE; Elgetan ere bai



EAEko odol emaile kopurua Europa mailako altuenetako da. Biztanleek dituzten beharrei erantzuteko nahiko odol ematen da. Elgetan ere herritar askok erantzuten dio Odol Emaileen Elkarteak egindako deiari. Duela ia 40 urte hasi ziren odola biltzen, eta euskal gizartean nabari dela dio Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko lehendakari Sabin Urtzelaik. "Belaunaldiz-belaunaldi ohitura hartzen joan dira herritarrek. Ohikoa bihurtu da". Elgetan 60 pertsona inguruk ematen dute odola.

"Gizakiak ezinbesteko du odola bizi irauteko. Gaixo ugarik premina larria izaten dute. Gure lana euskal herritarrari behar horien berri ematea da. Kontzientziario lana egiten dugu batez ere", adierazi zion Goibekokaleri Gipuzkoako Odol emaileen Elkarteko lehendakari Sabin Urtzelaik.


Odol Emaileen Elkarteko kide guztiak musutruk jarduten dute. Euren lana herrietako jentearekin harremanetan ipintzea da; hala nola,

hitzordua, janaria... odol ateratzeko beharrezkoak diren gauza guztiak ondo lotuta izatea bermatzen dute.

Gizonezkoek gehienez urtean lau aldiz eman dezakete odola, eta emakumeek, berriz, hirtan. Emakumeek hilero-koa izaten duelako eta genetikoki burdin kantitate gutxiago izanik gomendagarria da gutxiagotan ematea. "Legeak horrela agintzen du. Dena dela, herri guztietan ez dugu berdin egi-

ten. Gehienok Donostia ingurukoak izanda errezagoa da odol emateak antolatzea. Beste herri batzutan, berriz, gutxiagotan antolatzen dugu. Elgetan, urtean birritan egiten dugu normalean", azaldu zuen Urtzelaik.

EAE n beste lekuetan baino odol gehiago ematen da. Odol Emaileen Elkarteko kidearen ustez, arrazoi bat baino gehiago dago fenomeno hau arrazoitzeke. "Batetik euskaldunon izaera dagoela esango nuke. Euskal herritarrek, onerako eta txarrerako, oso argi izaten ditu gauzak eta burura etorri ahala egiten ditu.



Poltsa bete ondoren txukun-txukun eta ondo izendatuta gordetzen da emandako odola.

Bestetik Odol Emaileen Elkartearen jarduna dago. Hogeita hamasei urte daramatzagu lanean eta hori nabaritu egiten da. Odol emaileen hiru belaunaldi daude. Azken belaunaldiarendako gauza normala da odola ematea. Kultura kontua da",



Odola ateratzen hasi aurretik tentsioa hartu behar izaten da.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA


E
HARATEGIA

A
S
T

San Roke 6
tel: 768168.

azpimarratu zuen Urtzelaiak.

Odola Euskal Herriko eritetxeetan banatzen da. Hau egiteko ardura Odol Bankuarena da. "Odola atera ostean —litro erdi inguru aldirro— Odol Bankura eramaten dugu. Han sailkatu egiten da. eritetxeen beharren arabera odol mota bat edo beste ematen diegu".



Mareotxoren bat edo beste izaten den arren, esperientziadunen zaintzapean egoten da uneoro eta ez dago zertan larritu.

Ia denek eman dezakete odola

Odol emaile izateko ez dago baldintza asko bete beharrik. 18 eta 65 urte bitartean izanez gero, eta osasunez "nahiko ondo" aurkituz gero edonor izan daiteke odol emaile. Horretaz gain, azken urtean ebakuntzarik, bidaiak (batez ere gaixotasunak kontrolatzeko) "praktika arriskutsuak", tatuajeak... egin dituen galdetzen zaio odola eman nahi duenari. "Dena begiratzten da baina 18 eta 65 urte bitartean izanez gero eta gutxienez 50 kiloko pisua eukita nahiko da. %80ak baldintza guztiak betetzen ditu".

Odol emaile

gipuzkoarraren profila egitea ezinezkoa dela iritziz dio Urtzelaiak. Adin guztietako gizon zein emakumek ematen du. "Gipuzkoako biztanleriarekin proportzionala da. Gipuzkoan alkate gutxi

badago odola ematen duten alkateak ere gutxi dira. Hala ere, esan beharra dago herri txikietan jende gehiagok ematen duela odola", nabarmendu zuen Urtzelaiak.

Azken hamar



Galdutako odola berrizatzeko odola eman ostean pintxotxoak ematen dituzte urte askoan horixe egiten diharduten lagunek.

urteetan ez ei du odol emaileen kopuruak gora egin. Hala ere, kanpaina berri bat jarri dute abian etorkizunean arazorik ez izateko. "Sukar Aftosoa edo beste edozein gaixotasun dela eta, egun dau den odol emaileak gutxituko balira arazoak izango genituzke. Horrelakorik gertatu ez dadin odola emateko kanpaina berri bat jarri dugu abian".

Elgetan, gero eta odol emaile gehiago

Kanpaina lehen emaitzak ematen hasi da. Elgeta da horren adibiderik garbiena. Azken urte biotan odol emaile kopuruak gora egin du Elgetan. Guztira 60 pertsonak eman zuten odola 2000. urtean —32 gizonek eta 28 emakumek—. 1998. urtean baino lau pertsona gehiagok".

Etorkizunean kopuru hau handitzea espero dute Odol Emaileen elkartekoek. Badakizu, adinean bazaude eta 50 kilo baino gehiago badituzu hor duzu aukera. Gazta eta txorizoa ez dira faltako!

ZABALA

Lasao 6 Elgeta

Tel: 768075-6 768225

Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

**EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA**

Berezitasuna.
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

**BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA**

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Estampaciones Intxortak kopa ere Elgetara

Liga eta kopa partidurik galdu gabe irabazi ditu

Aste batzuk lehenago ligarekin egin bezala duela gutxi saskibaloi Kopa irabazi berri dute. Eibarko "Maixa tabernari" 57-35ko aldeaz nagusitu zitzairen. Markagailuak alde nabarmena erakusten duen arren partida ez zen dirudien bezain erraza izan. Hasieran berdindua izan zen, baina Elgetako joko antolatzaileek sartutako hirukoek min handia egin zieten aurkariei. Hiruko hauei esker, markagailuan alde eroso hartu zuten eta beste taldeak etsi behar izan zuen. Saskibaloian Eibarren dihardutenetik partidurik galdu ez duten lehenengo aldia da. Orain datorren denboraldirarte itxaron beharko dute. Bitartean garaipen hau ospatzeko aukerarik izango dute.



Saskibaloi kopa jokatu zuten jokalaria liga eta kopako sariekkin.

"Seme-alabak nola hezitu Kirolaren bidez" hitzaldi garrantzitsua

Maiatzaren 9 eguaztena soin hezkuntzan doktoratua den Luix Mari Zulaikak gurasoei eskaintako berbaldia egingo du. Besteak beste, haurtzaroko kirol jardueren onurak osasun eta nortasun eremuan, eskola-kiroleko egitasmoen ezaugarriak, haurren kirolean somatzen diren akatsak edo arriskuak, gurasoen eginkizuna... bezalako gaien gainean jardungo da. Bukaera eztabaida batekin emango zaio. Hitzaldia kultura etxean izango da arratsaldeko 19:30etan.


Iraitz Lazkanok WU-SHU (Kung-fu)-n zilarrezko 3 domina eskuratu ditu

Ez da lan makala Iraitzek egin duena Gipuzkoa eta Euskadiko WU-SHU txapelketan. Otsailaren 11n Astigarragan jokatu zen Gipuzkoako txapelketan bigarren postua eskuratu zuen federatu mailan, Nang-Chuang eran. Euskadikoa, berriz, Eibarren jokatu zen martxoaren 24ean. Kasu honetan zilarrezko bi domina lortu zituen Nang-Chuang eta Chang-Chuang formekin. Horrela jarraitzen badu seguru urrezko dominaren bat laster ekarriko duela Elgeta aldera.


Jone Muxika mendi-bizikletan hasiberri baina esperientziadun

Duela gutxi hasi zaigu Jone mendi-bizikletako probetan parte hartzen eta egia esan ez du batere gaizki egin. Betidanik bizikletan ibili arren sekulan lasterketetan parte hartu barikoa zen. Bere lagunek bultzatuta parte hartzea erabaki eta hiru proba lastertu ditu guztira bizkaiko Mendi-Bike taldearekin. Lehendabiziko proba Nafarroako Obanos herrian izan zen eta hirugarren amaitzea lortu zuen. Bigarren proba Arraten eta bertan ere hirugarren. Bi proba hauek Euskadiko txapelketarako baliagarriak ziren. Azken proba pasa den zapatuan izan zuen Donezteben eta bigarren amaitzea lortu zuen, orain arteko posturik onena.

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Areto futboleko txapelketa maiatzaren lehenengo astean hasiko da

Hiru talde Elgetakoak eta lau kanpokoak izango dira

Maiatzaren 5ean emango zaio hasiera Elgetatako futbito txapelketari. Guztira zazpi taldek eman dute izena, hiru Elgetakoak (Txapela, H.H.H., Nidiosesalbix), bi Durangokoak (Bar el Arco, Vicios), Eibar-ko bat (Paisano Club) eta Bergarako beste bat

(Komando piperrak). Iaz lortutako txapela eskuratzeko saiatuko da Durangoko Vicios taldea. Txapelari 3-1 nagusitu zitzaion iazko finalean. Jokatu diren partidua guztiak zapatu arratsaldean izango dira. Txapelketa amaiera herri-ko jaietarako izatea espero

da. Aurten nobedade bezela esan txapelketatan lehenengo geratzen den taldeendako sariak egongo direlara (30.000 pta. lehendabizikoarendako). Txapelketako golegile nagusiak ere sari bat izango du (15.000 pta.). Txapelketaren antolaketaren koordi-

naziorako eta sor daitezkeen gainerako arazoak konpontzeko, izena eman duten talde ezberdinetako arduradun eta Udal Kirol teknikariak koordinazio talde bat osotuko dute; orain arte egon ez eta beharrezkoa zen batzorde bat, hain zuzen ere.

Peñalver eta Ubera II. 4'terdiko txapelketan aurrera

Elgetako 4'terdiko txapelketa erdialdera iritsi da eta jadanik elgetar pilotariak beraien lehendabiziko partidak jokatu dituzte. Ubera II.ak 6an utzi zuen bere aurkakoa bere lehenengo partiduan. Peñalverrek berriz bere bigarren partidua jokatu du jadanik eta biak irabazi ditu. Azkena Igeldoko Goikoetxearen kontra 22-10.

Peñalverrek esan zigunez ez dabil bolada onean, baina partidua irabazten dihardu eta ez da gutxi. Besteak beste, Aramaion Errasti anaietako bati eskuz-banakoan irabazi zion.

Patinaia ikastaroa Elgetan

Elgetako udaletxe eta Debagoieneko mankomunitatearen eskutik maiatzetik ekainara bitartean lau erruberritako patinaia ikastaro bat antolatu da. Ikastaroa adin guztietako jendearentzat izango da, baina, beti ere, 15 urtetik gorakoendako. Ikastaroa Elgetako polikiroldegian izango da zapatutan (sei zapatu). Orduetia eta eguna oraindik zehazteke daude, baina printzipioz zapatu goizetan izango da 11:30etatik 13:00tara. Ikastaroaren prezioa 3000pta. Izenemateak edo infomazioa Elgetako kirol zerbitzuan (943 76 80 22) maiatzaren 16a baino lehen.

Elgetako pala txapelketa azkenetan

Elgetan antolatu den Deba goieneko pala-txapelketako amaitzeaz dago. Maiatzaren erdialdera jokatu dira txapelketako erdifinalak eta finala. Guztira sei bikotek hartu dute parte. Hauetatik bi bikote elgetakoak izan dira. Lehendabiziko laurak izango dira erdifinalak jokatu dutenak.



Izagirre eta Morales elgetar bikotea.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Liburuaren eguna

Liburuak herritarren eskura kalean

Liburuaren eguna dela eta, liburuak kalera ateratzea izan da aste honetako zarraparra. Ondorengo lerrootan antolatutakoaren berri eman eta egunaren helburua zein izan den azaltzera gatozkizue.

Liburuak kalera, guztion eskura.

Beharbada, guztiok ez ditugu behar bezainbeste liburutegiak edo liburutendak zapaltzen dena-delako arrazoiak direla eta, baina oraingoan, aitzakiarik gabe, herritar guztiok izan dugu gertutik eta zuzenean liburutegira heldutako azken liburuak ikusteko aukera.

Liburutegira iritsitako liburu berriak, helduentzako, haurrentzako, gazteleraz zein euskaraz izan dira, aukeran. Eusko Jaurleritzatik espreski haurrentzako bidalitako hainbat liburu zozketatu ziren umeen artean. Liburutegiko arduradunaren hitzetan, horrela-



ko liburuak margotzeko, zatikatu eta pegatzekoak etab. izan ohi dira eta liburutegian hurren artean iskanbila sortu ohi dute eta horregatik zotz egin zituzten.

Herriko arkupetan izan ziren liburuak eta jendeak interesa azaldu eta galdera dexente egin zituela adierazi digu

liburutegiko arduradunak. Balorazioa beraz positibotzat jo du.



Liburu berrietako batzuk

Haurrentzako


Teo umezain.
Alegiak (ipuin zaharrak)
Animaliak zure ondoan.
Tartalo (4 liburu)
Kalandrak (4 liburu)

Euskaraz


Senda-belarrak
Borrokaren gorrian
Euskal sena
Euliak ez dira argazkietan agertzen
Whisky koloreko gauak

Gazteleraz

El oro del rey
El imposible olvido
Una ciudad del Norte
La quinta montaña
Memorias de una Geisha



nazio
aske bat
jaiotzera doa



Euskal

BO

BOZKATU



euska




Jaunartze haundixa

Erretratu politta ekarri dosku oinguan Mari Asun Agirrek. Maiatzian sartu barri gara laster egingo dabe euren lehenengo jaunartzia herriko neska mutikuek. Lehenau bi jaunartze egin bihar izaten ziran, bata oin moduan, bederatzi urtekin eta bestia hamalau urtekin.

Korpus egunian egin zeben jaunartxe haundixa erretratuko neska mutikuek. Hamalau urte inguru eukiko zittuen ordurako. Neskak kristalezko soinekua jantzi bihar izaten zaben, mutillak korbata eta amerikania eruatia derrigor. Orraztu, zapata dotoriak jantzi eta danak etxeak atzian zittuztela mezarara.

Aurrian ezkerretik eskumara: Mari karmen Etxebarria, Ana Mari Zabalondo, Begoña Telleria, Elena Arotzena, Mari Asun Agirre eta Mari Tere Erostarbe.

Astian ezkerretik eskumara: Mari karmen Askasibar, Angel Iturrigaztelu, Patxi Basauri, Miguel Mari Elorriaga eta Luis Mari Arantzeta.




EH

Euskal Herritarrok

ZKATU

herria





Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK

